


ELKARTASUN KILOMETROEN



Save the Children



TXOSTENA

Dosier batek eta hezkuntza-etapetarako zenbait jardueraren proposamenek osatzen dute honako gida didaktiko hau. Irakaslearentzako tresna egoki bat izan nahi du, sentiberatze-lana osatzeko, eta, xede horretarako, beste errealitate batzuei buruzko datuak, informazioa eta ezaguerak dakartza, elkartasunean, errespetuan, lankidetzan, erantzukizunean eta horrelako balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzeko, zehazki.

Zuzendaria:
Marisol Paniagua

Laguntzailea:
Marisa Ortega del Val

Artea eta maketazioa:
Germán Gullón (VALBHY)



SARRERA

2018-2019 ikasturtean, Elkartasun Kilometroa eskola-lasterketaren XV. edizioa ospatuko dugu, eta, beraz, egoera ahulenean dauden adingabeen hezkuntzarako eskubidearen alde egingo dugu korrika, gatazka armatu baten ondorioz errefuxiatu edo iheslari gisa bizi diren adingabeen alde; izan ere, ikasten jarraitzeko aukera oro kendu edo murriztu zaie horren ondorioz.

Munduan, haur gehiegi daude eskolatu gabe, edo hezkuntza aldian-aldian baino jasotzen ez dutenak. Neska eta mutiko horietako bakoitzak bere ametsak eta gaitasunak dauzka, baina, ziurrenik, ezin izango ditu bete edota garatu, laguntzen ez badiogu. Haur horietako bakoitzak hezkuntza jasotzeko eskubidea du, eta gure betebeharra da eskubide hori gauzatzeko bidea ematea.

Hezkuntzarik gabe, ez dute izango aukerarik kalitatezko lanpostu bat eskuratzeko eta, horrela, beren bizitza hobetu eta pobrezia-zikloa eteteko; pobrezia-zikloa batez ere haurrei eragiten dien faktorea da, baina haien familiei eta komunitatearen aurrerabideari ere eragiten die.

Ziurrenik, gai gara gerra betean biziko bagina gure bizitza nolakoa litzatekeen irudikatzeko, baina gai gara imajinatzeko hori nola bizi dezakeen haur batek, gauetik goizera bere bizitza zergatik aldatu den ulertzen ez duen haur batek?



Munduan, milioika umeri kendu egin zaie eskolara joateko aukera, herrialde behartsu batean bizi direlako, **edota gatazka bat dutelako herrialdean.**


HAURRAK GATAZKA-EGOERETAN

ZER ESAN NAHI DU GERRA BATEAN HAUR IZATEAK?

Haur bat gatazka baten biktima izateak ez du esan nahi soilik gerraren ondorioz bere herrialdea utzi behar izan duela edo bonben azpian bizi dela; bere haurtzaroa ere kendu zaiola esan nahi du. Haurraren mundua hankaz gora jartzen du gerrak. Haurrarentzat halako segurtasun bat adierazten duen oro suntsitzen du gerrak: etxeak suntsitzen ditu, edateko ur garbia edo oinarritzko elikagaiak eskuratzeko aukera zailtzen dio komunitateari, eskolara joateko aukera kentzen dio, itxita dagoelako edo harako bidaia arriskutsua izan daitekeelako; ospitaleak gatazkaren biktima direnekin gainezka egotea esan nahi du, edota gurasoak modu erregular batean lanera ezin joan izatea eta, beraz, diru-sarrera erregularrik ez izatea...

Horrelako alderdiek bultzatuta, beren bizitza salbatzeko ihes egitera behartuta sentitzen dira, kasurik onenetan, gurasoekin batera, eta, zenbaitetan, bakarrik; arriskuz betetako bide ezezagun bati ekiten diote horrela, eta muturreko indarkeriaren biktima bihurtzen dira askotan.

Errefuxiatu adingabeena da kolektiborik zaurgarrienetakoa. Bada datu esanguratsu bat, horri dagokionez: errefuxiatu ez den haur batekin alderatuta, **eskolara ez joateko** bost aldiz arrisku handiagoa du haur errefuxiatu batek. Zorte handiena dutenak leku seguruetara iritsiko dira, baina han ere ez dute bizimodu erraza aurkituko. Horrelako egoeretan, **babeslekuaren barneko babesleku bihurtzen da eskola**: itxaropena berreskura dezakete eskolan, eta, bereziki, alaitasuna bizi dezakete berriro. Haur izaten hasiko dira berriro.



ARAZOAREN MAGNITUDEA ULERTZEN LAGUNDUKO DIGUTEN ZENBAIT DATU

- **Gatazka-eremuetan bizi dira 357 milioi haur.** Horrek esan nahi du sei haurretatik batek indarkeria jasateko arrisku handia duela.
- **Munduan, lekualdatutako 60 milioi pertsona baino gehiago daude,** eta 18 urtetik beherakoak dira horien erdiak baino gehiago.
- **Egunero, 28.300 pertsonak beren etxeetatik ihes egin beharra dute,** gatazken eta jazarpenen ondorioz.
- **Pertsona batek batez beste errefuxiatu gisa egiten duen denboraldia 17 urtekoa da.** Hau da, haurtzaro osoa.
- **Errefuxiatuen erdia baino gehiago hiru herrialde hauetakoak dira:** Siria, Afganistan eta Hego Sudan.
- **Siriarren erdiak, gatazkan 8 urte igaro eta gero, lekualdatuta bizi dira,** beren herrialdearen barnean edo handik kanpo.

HAUR IZATEKO MUNDUKO TOKIRIK TXARRENETAKOA

8. urtea du Siriako gerrak, eta ez dirudi irtenbiderik aurkitu zaionik. Egoera larria dute oraindik. 11 milioi siriarrek beren etxeak utzi dituzte, eta ia 3 milioi sarbide zaileko inguru setiatuetan bizi dira; haurrek janaria, ura eta laguntza medikoa behar dituzte. Hirutik bik maite zuten norbait galdu dute, beren etxea bonbardatuta ikusi dute, edota lesioak jasan dituzte. Gatazkan ari diren talde armatuek eskolak eta instalazio medikoak bonbardatzen jarraitzen dute, bai eta zibilei eraso egiten ere. Haurren belaunaldi bat gerra ez den beste egoerarik ezagutu gabe ari da hazten, eta beren hezkuntza eta etorkizuna galtzen ari dira.



GURE LANA

2017an, hainbat tokitan esku hartu zuen zuzenean Save the Children erakundeak, mundu osoko 43 gatazkatan hainbat ekimen gauzatuz; haurrak babestea zuen xede, haien eskubideen alde eginez eta egiaz haur izaten jarrai zezaten lagunduz. Emaileri eta erakundeei esker egin ahal izan zen lan hori, baina baita beren ahaleginaren eta konpromisoaren bidez beste haur batzuei laguntzen dieten haurrei esker ere, horixe ahalbidetzen baitute, esate baterako, ikastetxeetan gauzatzen ditugun gure programak. **Ikasturte honetan, 2019an zehazki, 100 urte beteko ditugu, eta erronka handi bat ospatzeko baliatu nahi dugu urtebetetze hori: milioi bat haurrek gerrak beren ametsak ostu dizkieten beste milioi bat haurri laguntzea.** Lortuko dugu, ziur gaude horretaz.

Siriako gerraren kasuan, lekualdatutako eta errefuxiatutako haurrei laguntzen diegu, “Haurren lagun diren esparru seguruetan”, Jordanian, Libanon, Iraken, Egipton nahiz Sirian bertan. Laguntza psikosoziala ematen zaie leku horietan, eta batez ere gertaera traumatikoen lekuko izan diren haurrei askotariko jarduerak egiteko aukera ematen zaie, beren larritasuna gaindi dezaten eta berriro haur izaten has daitezen.

ZAATARIKO ERREFUXIATUEN ESPARRUA

2012ko uztailaren 28an sortutako esparrua da, Jordaniak Siriarekin duen mugatik gertu dagoena, gerratik ihesi zihoazen siriarrentzat behin-behineko irtenbide gisa eratua. Urte hauek guztiak iragan ondoren, hasiera batean behin-behineko irtenbide gisa jo zena 80.000 pertsona baino gehiago biltzen dituen giza kokaleku bihurtu da; jada kanpadendetan luzaroago jarraitu ezin zutenez, gaur egun behin-behineko babesguneetan bizi dira, antolatuxeago, nahiz eta nazioarteko elkartasunaren eta gobernuz kanpoko erakundeen mende dauden.

ZAATARIKO BIZIMODUA ULERTZEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI

- Esparru honek 5,3 km²-ko azalera du.
- Astean 80 haur jaiotzen dira batez beste, eta 1.400 mediku-kontsulta izaten dira.
- 21.400 haur daude eskolatuta, 31 eskolatan eta 58 komunitate-zentrotan.
- Bost etxetatik batean emakumea da buru.
- Ez dute urik, eta argindar-hornidura eten egiten da tarteka.
- Temperatura-tarte zabala dute: 0 °C neguan eta 45 °C udan.



ZAATARIKO GURE LANA

Save the Childrenen Jordaniako atala lanean ari da kanpalekuaren sorreratik, haurren eta gazteen bizi-kalitatea eta aukerak hobetzeko asmoz, eta, horretarako, hezkuntza, osasuna eta elikadura, babesa eta haurren arteko pobrezia erantzuteko zerbitzua barnean hartzen dituzten programak garatu ditu.



HEZKUNTZA

Esparrura iritsi diren haur errefuxiatuentzat nahiz esparru horretan jaiotakoentzat, funtsezkoa da hezkuntzan sarbidea izatea, bai etorkizunari begira izan ditzaketen aukerak kontuan hartuta eta bai haien ongizate emozional eta psikologikorako. Ohitura batzuk hartzea, ikastea eta errefuxiatuen esparruan edo horrelako gune batean inguru seguru eta abegitsuak izatea lagungarri da haurren egonkortasun emozionalerako.

Gure helburua haien ikaskuntzako emaitzak eta ongizatea hobetzea da. Horretarako, **12 zentro** abiarazi ditugu harrerako komunitateetan, hurrei hezkuntza eta arreta-zerbitzua eman ahal izateko. **5.000 neska-mutil** ibiltzen dira urtero Hezkuntza Goiztiarreko Zentroetan.



OSASUNA ETA ELIKADURA

Amek, haur jaioberriek eta bost urtetik beherako neska-mutilek zainketa bereziak behar dituzte. Horregatik, gure osasun- eta elikadura-programen ikuspegia horiei zuzentzen zaie bereziki, zaurgarrienei, zehazki. Edoskitze naturalerako jardunbide hobeak sustatuz eta haurdun dauden emakumeei nahiz amei orientabidea eskainiz, esparruan haurren arteko heriotza-arriskua murriztea lortu dugu.

1.035 haur eta 165 emakume haurdun eta bular-emaile artatu dira urtebetean, desnutrizioagatik. Osasunaren esparruan, klinikako 96 profesional eta komunitateko boluntario prestatu ditugu errefuxiatuen esparruan, desnutrizio-kasuak hautemateko. Haur eta gazteentzako 17 elikadura-zentroren jardura sustatu dugu, eta haurdun diren edo bularra ematen ari diren 43.000 emakume artatzen dira berorietan, kanpalekuen eta harrerako komunitateen barnean. Egunero, ogia banatzen diegu **74.000 errefuxiaturi.**



HAURREN BABESA

Jordanian, haurrak babesteko Save the Childrenen programen bidez, luze iraungo duten aldagetak lortzeko ahalegina egiten da, haurrak seguru eta babestuta egongo direla ziurtatzeko. Haur horien inguruabarretara eta beharretara egokitutako programen eta ekintzen bidez egiten dugu hori.

Errefuxiatuen esparruko gazteei hezkuntza-aukerak eskaintzeko, **3 harrera- eta jardura-etxe** babesten ditugu. Horrez gain, **haurren 38 ezkontza saihestu dira**, sentiberatze-saioen bidez.

Informazio gehiago eskura dezakezu gure webgunean, honako dokumentu honetan:



bit.ly/2PaROeJ

JARDUERAK

Hezkuntzaren bidez balioak, ezaguerak... transmititzen dira; identitateak eratzen dira; gure izaera osatzen laguntzen du, eta osotasun pertsonala indartzen du. Gizarteak hobetzen ditu hezkuntzak, bai eta haurren bizi-kalitatea ere. Horregatik, haur orori dagokion giza eskubide bat da hezkuntza.

Ezinbestekoa da hezkuntzarako eskubidea bermatzea gatazka armatuetan, haurrei segurtasuna ematea, haurrek beren etorkizuna eraikitzeko eta beren ametsak betetzeko aukera izatea, eta haien bizitza salbatzea.

Ikasturte honetan, 100 urte beteko dira Save the Children haurren alde lanean hasi zenetik, eta, hori ospatzeko, erronka bat proposatu nahi dizuegu: lortuko ote dugu milioi haurrek eta haien senitartekoek gerraren erruz eskolarik gabe dauden beste milioi bat haurri laguntzea?

Proposatutako material didaktikoak munduko errealitateen ezagutza gerturatuko digu, bai eta justiziaren, eskubideen berdintasunaren eta duintasunaren alde parte hartzeko izan ditzakegun prozesuen ezagutza ere.

Helburuak

- Gerragatik beren herrialdetik ihes egin behar izan duten haur siriarren egoera ezagutaraztea.
- Oro har, bizitza eta, bereziki, babesgabe dauden haurren bizitza hobetzeko beharrezkoak diren jarrera positiboak sustatzea.
- Berdintasunaren eta haur siriarren aldeko parte-hartzea erraztea.

Edukiak

Babesa, segurtasuna, errefuxiatuak, hezkuntza, haurren eskubideak, ametsak, harrera, mugak, gatazka, gerra, sentimenduak, berdintasuna, bizitza hobetzeko gaitasunak.

Konpetentziak

- Entzuteko jarrera, asimilazioa eta analisisa
- Interesa, enpatia eta ulermena
- Gogoeta, elkarrizketa eta lankidetzatza
- Sormena eta adierazpena
- Talde-lana, negoziazioa eta lankidetzatza
- Esperientzia, erantzukizuna eta erabakimena

Jardueren diseinuan, hiru **prozesu** metodologiko hartu dira barnean, hezkuntza mailetakoko **ikaskuntzari** egokitzen zaizkienak:

- **EZAGUTZEA:** informazioa entzuteko eta ulertzeko prozesua.
- **GOGOETA EGITEA:** asimilatze-prozesua, banaka eta taldean ondorioak atertzeko.
- **PARTE HARTZEA:** justiziaren eta aukera-berdintasunaren aldeko ekintza arduratsuari dagokion prozesua.



50 min

«BABESLEKU BAT IKASGELAN»

Adina: 3-6 urte

PROPOSAMENA

Seguru sentitu beharraz pentsarazi nahi zaie parte-hartzaileei. Segurtasunaren kontzeptua gertuagotik aztertzeke modua ikasgelan babesleku bat eraikiz garatuko da. Babesleku horretara nor gonbidatuko luketen pentsatuko dute hurrek, beste errealitate batzuk ezagutzen hasteko eta munduko haurren berdintasunaz duten ikuspegia zabaltzeko.

BEHAR DUZUNA

Material birziklatua (arrautzen kartoiak, azpilak...), oihal zatiak, pintzelak, margoak, arkatx markatzaileak, eranskailuak, kola, koloretako papera, artilea, soka, kordoa, puntzoia, grapagailuak...

NOLA EGIN

Gonbidatu haurrak elkarrekin babesleku bat altxatzera (5 min)

Babesteko eta seguru sentitzeko babesleku bat guztiok behar dugula azalduko du irakasleak; guztiok behar dugu toki bat hotzetatik, berotatik, beldurretatik, zaretatik... babesteko, eta maite gaituztenen ondoan seguru sentitzeko.

Galdera, eta erantzunen txanda (10 min)

Biribilean bilduko gara, eta haxe galdetuko du irakasleak: Nor gonbidatuko genuke gure babeslekura? Bat-batean erantzungo dute hurrek, eta, txanda amaitzeko, irakasleak azalduko du berak Siriako haurrak gonbidatuko lituzkeela, urte asko baitaramatzate babesleku lasai baten eta seguru sentiaraziko dituen ikastetxe baten bila.




Babeslekua altxatzen hasiko gara (25 min)

Margoak, paperak eta eranskailuak prestatuko ditu irakasleak, arrautzen kartoizko kaxeia, azpilei eta, oro har, eskuratu dugun birziklatutako material guztiari kolorea emateko. Artilea edo soka erabiliz, apaindutako material horiek guztiak bateratuko ditu irakasleak, teiltatu forma emateko. Gero, oihal zati bat eskegiko da teiltatutik (zerrendetan, errezel bat balitz bezala), eta, horrela, hormak osatuko dira. (Eraikitzeo aukera bat baino ez da. Babesleku xumeago bat ere osa daiteke, kanpadenda batekin, eta apaindu egin daiteke gero).

Gure babeslekua sentitzen (10 min)

Babeslekua amaitu ondoren, irakasleak azalduko du guri babesa emateko balioko duela, ondo sentitu nahi dugun eta besteen maitasuna sumatu nahi dugun bakoitzean. Une horretan, babeslekua ezagutzen hasiko gara, banaka, elkarrekin, abestuz, dantza eginez, entzunez, lau hankan, irribarrez... Seguru sentitzeak duen garrantziaz jabetzeko balio izango digu horrek.



IRADOKIZUNAK

Jarduera hau garatu aurretik, birziklatutako materiala ekartzera gonbidatuko ditugu familiak (azpilak, arrautzen kaxak, erabiltzen ez dituzten oihal zatiak).

Jarduera honetako faseetarako erabiliko den denbora luzatu edo moztu daiteke, irakaslearen irizpidearen eta parte-hartzaileen adinaren arabera.

Siriar errefuxiatuen errealitateari buruzko bideoak eta artikuluak ikustea garrantzitsua da, ekimenean parte hartzeko arrazoia bere testuinguruan kokatzeko.

AMAIERAKO GALDERA

Zenbat neska-mutil sentitzen zarete babestuta eta seguru? Zer behar duzue seguru sentitzeko? Ezagutzen duzu seguru sentitzen ez den haurrik? Zergatik?



55 min

«MARGOTU HALIMAREN EMOZIOA»

Adina: 6-9 urte

PROPOSAMENA

Ikasleek ezagut ditzatela neska errefuxiatu baten ametsak eta sentimenduak, kontakizun labur baten bidez. Gero, Halimaren sentimendu eta amets horiek biñeta batzuetan edo marrazkiekiko horma-irudi batean islatuko dira. Amaieran, ametsei buruz hitz egingo da.

BEHAR DUZUNA

Halimaren kontakizuna, paper jarraitua, arkatz markatzaileak, margoak.

NOLA EGIN

Kontakizun bat kontatuko da (10 min)

13 urteko neskato baten kontakizuna kontatuko du irakasleak, Halimarena:

Amets bat zuen Halimak, eta poza sentitzen zuen, txiki-txikitatik nahi izan zuelako amets hura bete: al baitaria izan nahi zuen. Orain, ordea, bost urte daramatza eskolara joan gabe: «Etsita sentitzen naiz, adorerik gabe, zapuztuta».

Halimak ikasi egin nahi luke: «Ikasi ahal izango banu, nire etorkizunaren inguruan sentitzen dudak kezka arindu ahal izango nuke. Al baitari izateko nire ametsa betetzeak sentiaraziko lidakeen poza sentitu nahi nuke».

Amets egiten du askotan Halimak: «Nire logela, nire ohea eta nire jostailuak agertzen zaizkit ametsen. Ezer ez da lehen bezalakoa. Galduta sentitzen naiz. Lasai eta bakean egon nahi dut».

Ez du ezerk justifikatzen haurren tristezia, ilusioa eta ametsak galdu izana: «Lasaitasunik gabe, ezin dugu zoriontsu izan. Siriatik irten nintzenean, gerran hiltzeko beldur handia nuen. Beste beldur mota bat daukat orain: bidegabekeriaren eta bizitzeko aukerarik ez izatearen beldur naiz... Badakit edozein neska edo mutil siriarren egoera berean nagoela».



Kontakizuna margotuko dugu (25 min)

Lantaldeak osatuko ditu irakasleak, paper jarraituan horma-irudiak edo biñetak egiteko. Horma-irudi bakoitzean, Halimaren kontakizuneko esaldi bat idatziko da.

Horma-irudiak banatuko dira gelan, eta marrazteko materiala emango zaie. Talde bakoitza horma-irudi batetik bestera ibiliko da, txandan-txandan. Halimak sentitzen duena beren marrazkien bidez horma-irudian islatzeko, bost minutu izango dituzte.

Halimaren ametsaren inguruan eztabaidan (15 min)

Halimak eta beste hurrek etorkizunari begira dituzten ametsak betetzeko aukerarik izango duten galdetuko die irakasleak taldeei, eta zergatik. Erantzunak ere idatz daitezke horma-irudietan.

IRADOKIZUNAK

Adinaren arabera egitura dezake irakasleak gela. Parte-hartzaileen adinaren arabera antolatuko dira horma-irudia edo biñetak, bai biñetetarako esaldiak aukeratzerakoan eta bai marrazteko metodoa zehazterakoan (marrazketa librea, taldeka, behaketa, ikaskidearen marrazkia egiten jarraitzeko aukera...).

AMAIERAN

Elkartasunezko lasterketaren berri emango diegu; izena emango dugu korrika egiteko, korrikalari txartela banatuko zaie, eta ekonomikoki lagunduko duten babesleak aurkitzeak duen garrantzia azalduko zaie, beharrezkoa baita laguntza mota hori ere, haur siriarrek eskolara joateko aukera izan dezaten eta bizirik jarrai dezaten.





55 min

«BABES BILA NATOR»

Adina: 9-12 urte

PROPOSAMENA

Siriako haurren errealitateko zenbait alderdiz jabetu daitezela parte-hartzaileak, egituratutako elkarrizketa baten bidez. Elkarrizketaren eredu lagungarri izango da rol bat edo bestea hartzeko: errefuxiatuarena edo kazetariarena. Amaitzean, garrantzitsua da esperientziari buruzko iritziak eta sentimenduak trukatzeko.

BEHAR DUZUNA

Elkarrizketa, orriak, bolalumak.

NOLA EGIN

Irakaslearen azalpena (5 min)

Irakasleak azalduko die Sirian, gerra aurretik, hemen bezalaxe bizi zirela. Siriako herrialdeak zazpi urte daramatza gerra zibilean sartuta. Denboraldi horretan, beren herrialdea utzi behar izan dute familia askok, bizitza galduko duten beldurrez. Bizirik jarraitzeko beren herrialdetik ihes egitean, errefuxiatu edo iheslari bihurtu dira. Siriari buruzko informazioa ere bila dezakete.

Elkarrizketan (15 min)

Binaka jartzeko esango die irakasleak parte-hartzaileei. 7 minutuz, bikotekide batek **haur errefuxiatu baten lekua** hartuko du, eta elkarrizketatzailearen funtzioa hartuko du bestea. Zazpi minutuak igarotzen direnean, bestearen lekua hartuko du bakoitzak.

Elkarrizketari ekitean, mutil-izen bat (Alim, Badi, Isam, Namir, Nasim, Radi...) edo neska-izen bat (Amina, Anbar, Halima, Kala, Raissa) hartuko du haur iheslari bakoitzak.

Elkarrizketaren gidoia emango die irakasleak:

1. Nola duzu izena?
2. Zenbat urte dituzu?
3. Zazpi urte daramatza Siriak gerran. Duela zenbat irten zinen zu zure herrialdetik?
4. Zenbat urte zenituen herrialdea utzi zenuenean?
5. Galdu zenuen familiako inor gerran?
6. Herrialderen batek hartu zaitu, edo errefuxiatuen esparru batean bizi zara orain?
7. Bakarrik zaude, edo baduzu senitartekoaren bat ondoan?
8. Zer izan nahi zenuen handitan?
9. Nolakoa zen zure etxea gerra hasi aurretik?
10. Nolakoa zen zure ikastetxea?
11. Zer sentitzen duzu errefuxiatu gisa?

Bateratze-lana (10 min)

Elkarrizketa egin ostean, iritziak trukatzen hasiko gara, eta errefuxiatu gisa eta elkarrizketatzaile gisa nola sentitu garen azalduko dugu, erantzunak bateratuz. Zertaz ohartu gara? Uste duzu jarri zarela haur errefuxiatu baten tokian, pixka batez bada ere? Zergatik iruditzen zaizu zaila haren tokian jartzea?

IRADOKIZUNAK

Garrantzitsua da Siriako haur errefuxiatuen errealitateari buruz Save the Childrenek egindako artikuluak eta bideoak ikustea, testuinguruan kokatzeko eta Elkartasun Lasterketan parte hartzeak zer esan nahi duen ulertzeko.

AMAIERAN

Elkartasunezko lasterketaren berri emango diegu; izena emango dugu korrika egiteko, korrikalari txartela banatuko zaie, eta ekonomikoki lagunduko duten babesleak aurkitzeak duen garrantzia azalduko zaie, beharrezkoa baita laguntza mota hori ere, haur siriarrak eskolara joateko aukera izan dezaten eta bizirik jarrai dezaten.





55 min

«LAGUN EZEZAGUNAK»

Adina: 13-15 urte

PROPOSAMENA

Parte-hartzaileek haur errefuxiatu baten bizitzan eragina duten pertxonak ezagut ditzatela, beren historiaren bidez. Lantaldeek gogoeta egingo dute besteen bizitza hobetzen laguntzen duten pertsonen ezaugarriei buruz, eta haurren duintasuna babestu beharraz hausnartuko dute.

BEHAR DUZUNA

Radiren historia, orriak, bolalumak, papera, kartoi meheak eta arkatz markatzaileak.

NOLA EGIN

Radiren historia (10 min)

Siriako haur errefuxiatu baten historia kontatuko die irakasleak, Radirena: “Radik 12 urte zituen Siritatik bakarrik ihesi abiatu eta Berlinera iritsi zenean. Inork ez daki zer bizi izan duen Mediterraneoan zehar ihesi egindako bidean, zer galdu duen bidean.

Radi bakar-bakarrik zegoen Berlinen, **Ottok** eta **Dorotheak** etxean hartu zutenean; beste heldu batzuk ere bizi dira etxe horretan, eta guztien artean zaintzen dute. Egunero, hizkuntza ikasten du, eta familia berriaren ohiturak ikasten ere ari da. Halaber, ikastetxera egokitzen ari da. Baina hiru pertsonarekin duen konexioak eta adiskidetasunak lagundu diote bereziki bere beldurrekin aurrera egiten: **Berto**, 50 urteko irakaslea, **Humberta**, 11 urteko ikaskidea, eta **Oswaldo**, 65 urteko gizona, bere beldurrekin bizitzen laguntzen diona. Pixkana, partekatutako etxe horretan hartu duten pertsonengan eta eskolan konfiantza izaten ikasten ari da.



Pentsatu, eta gaitasunak idatziz jaso (15 min)

Sei lantalde osatuko ditu irakasleak. Radiren historiako kide berrien artetik, izen bat emango dio talde bakoitzari (Otto, Dorothea, Berto, Humberta, Oswaldo eta Radi). Talde bakoitzak 7 minutu izango ditu egokitu zaion pertsonaiak hitz egiteko, eta orri batean idatziz jasoko ditu lagun ezezagun horrek ustez izan ditzakeen ezaugarriak.

Ezaugarriak bateratzea (10 min)

Taldeetan lan egin ondoren, beste pertsona batzuen bizitza hobetzen eta munduan bizitza duina sustatzen laguntzen duten pertsonen ezaugarri komunak bateratuko ditugu (horma-irudi batean bilduko ditugu ezaugarri horiek). Irakasleak azalduko du ezaugarri horiek sustatzea beharrezkoa dela, eta, horregatik, Siriako haur errefuxiatuen aldeko Elkartasun Lasterketan parte hartzea erabaki dela esango die.

IRADOKIZUNAK

Garrantzitsua da jarduera garatu ondoren siriar errefuxiatuei buruz Save the Childrenek egindako bideoak eta artikuluak ezagutaraztea, ekimenean parte hartzeko arrazoia grafikoki bere testuinguruan kokatzeko.



savethechildren.es/losmassolos

AMAIERAN

Elkartasunezko lasterketaren berri emango diegu; izena emango dugu korrika egiteko, korrikalari txartela banatuko zaie, eta ekonomikoki lagunduko duten babesleak aurkitzeak duen garrantzia azalduko zaie, beharrezkoa baita laguntza mota hori ere, haur siriarrak eskolara joateko aukera izan dezaten eta bizirik jarrai dezaten.



BIGARREN HEZKUNTZAKO ETAPA

«HUTSUNEAK SORTZEN DITUEN FABRIKA BAT DA GERRA»

Adina: 15-18 urte



50 min.

PROPOSAMENA

Siriarr errefuxiatuen kanpalekuei buruzko bideo bat ikus dezatela ikasgelan, edo artikulua bat irakur dezatela; eta egin dezatela gogoeta taldeetan, gerrak sortzen duen hutsuneaz. Horretarako, “hutsunea” bete dezaketen hitzak idatziz jasotzen joango dira lantaldeak, litroko edukiera duen ur botila huts bat bete arte. Hitzak agerian jartzean eta aukeratzean, parte-hartzaileak bakeaz eta duintasunaz gogoeta egiten hasiko dira.



savethechildren.es/actualidad/carta-padre-refugiado-sirio

BEHAR DUZUNA

Bideoa edo artikulua, Interneteko lotura, litroko edukiera duten ur botila hutsak –taldeak adina–, neurri berean ebakitako paper zatiak, bolaluma, arkatz markatzaileak eta paper jarraitua.

NOLA EGIN

Bideoa ikusi edo artikulua irakurri (15 min)

Siriako haur errefuxiatuei buruzko bideo bat ikusi edo artikulua bat irakurriko dela azalduko die irakasleak, errealitatea hobeto ezagutzeko asmoz, askotan ez baitugu nahikoa informazio errealitate horretaz.

Hitza idatziz jaso (15 min)

Bideoa ikusi ondoren, bosteko lantaldeak osatuko ditu irakasleak, eta botila bat eta hitzak idazteko paper zatiak emango dizkio talde bakoitzari. “Hutsuneak sortzen dituen fabrika bat da gerra” izeneko jarduera bat egingo dutela esango die taldeei. Gerrak eragindako hutsunea betetzen hasi behar du talde bakoitzak azkar-azkar. Irakasleak hasteko seinalea egiten dienean, hitzekin bete behar dituzte botilak taldeek (sentimenduak, objektuak, aditzak, adjektiboak...). Taldeetako batek botila lehenengo betetzen duenean amaituko da dinamika.



Hitzak bateratu (15 min)

Talde bakoitzeko ordezkari bat arbelaren edo horma-irudiaren aurrean kokatuko da, eta jasotako hitz guztiak idatziko ditu. Lehenengo amaitu duen taldea hasiko da. Hitz guztiak idatzi direnean, haurren bizitza duintasunez eta errespetuz betetzeko egokienak diren hamar hitzak aukeratuko ditu talde bakoitzak hitz guztien artetik. Hitzak aukeratu ondoren, ikasgelan azalduko dira, eta berorien esanahiaz hitz egingo da taldeetan.

IRADOKIZUNAK

Haur txikiagoentzat ere egokia izan daiteke jarduera hau. Aukeratutako hitzak hainbat modutara azter daitezke: morfologikoki, sintaktikoki, esaldiak eraikiz eta analizatuz, esanahiak bilatuz...

AMAIERAN

Zer ondorio atera duzu jarduera amaitzean?

Elkartasunezko lasterketaren berri emango diegu; izena emango dugu korrika egiteko, korrikalari txartela banatuko zaie, eta ekonomikoki lagunduko duten babesleak aurkitzeak duen garrantzia azalduko zaie, beharrezkoa baita laguntza mota hori ere, haur siriarrek eskolara joateko aukera izan dezaten eta bizirik jarrai dezaten.



ELKARTASUN-LASTERKETARI BURUZKO GALDERA OHIKOENAK



Nor dira babesleak? Enpresak bilatu behar ditugu?

Normalean, babesleak ikasleen senitartekoak dira (aita, ama, aitona-amonak...), eta babes hori ekarpen txiki bat izan ohi da. Zenbat eta babesle gehiago, orduan eta handiagoa izango da sentsibilizazioa, eta hobe da ikaskuntza ere.

Lasterketak egun jakin batean izan behar du?

Ez, ikastetxeari egokien iruditzen zaion egunean egin dezakezue lasterketa. Jaiegun dibertigarria izan daiteke, elkartasuna jorratzeaz gain.

Parte-hartzaile gehiago izanez gero, eska dezakegu material gehiago?

Bai, material gehiago eska dezakezue, helbide honetan: **carrera@savethechildren.org**, edo telefonoz ere eska dezakezue. Egun gutxiren buruan jasoko duzue ikastetxean.

Ikasleengandik dirua jaso ondoren, nola helaraziko zaio Save the Children erakundeari?

Babesleen dirua bildu ondoren, honako kontu honetan sartuko du dirua ikastetxeak:

BANCO SANTANDER
ES55 0049 1837 5620 1024 9000

Transferentzia bidez edo dirutan egin dezake.

Diru-sarrera zuzenean dirutan eginez gero, izan dezakegu arazorik?

Banketxearen bulegoaren baitan dago hori. Banketxe horren bulegora joan aurretik, gomendio bat: gure webgunean, atal batean, zenbait aholku eta dokumentu aurkiko dituzue, diru-sarrera egiteko orduan bankuan zailtasunik ez izateko lagungarri gerta dakizkizuenak.



Bildutako dirua sar dezakegu beste banketxe batean

Baditugu kontuak beste banketxe batzuetan ere. Kasu horretan, jar zaitezte harremanetan, mesedez, Ikastetxeetako Programen sailarekin. Diru-sarrera egiteko erabil ditzakezuen beste banketxe batzuetako kontuak emango dizkizuegu, eta zer pauso eman ere azalduko dizuegu.

Garrantzitsua da diru-sarrera egin duen ikastetxearen izena azaltzea?

Bai, berebiziko garrantzia du **izena eta udalerrria** argi uzteak. Hala, gure esker ona adierazteko diploma igor dezakegu ikastetxera, eta hezkuntza-elkarte osoari zabal diezaiokezue gure esker ona horrela.

Zalantzarik badugu, non eta norekin argitu dezakegu?

Ikastetxeetako Programen sailarekin harremanetan jar zaitezke, helbide hauen bidez:

Tel.: 91 513 05 00



carrera@savethechildren.org
sol.paniagua@savethechildren.org (Marisol Paniagua, programen koordinatzailea)
nieves.garcia@savethechildren.org (Nieves García, ebaluazio-teknikaria)

Eskolako hurrei Afrikako herrialde txirotuetako neska-mutilen egoera gerturatzeko dien hezkuntza-proposamena da **Elkartasun-kilometroak**, Save the Children erakundeak abian dituen haurrak bizirik irauteko proiektuetarako funtsak lortzeko eta haurren eskubideak ezagutzeko, gida honetan aurkezten diren proposamen didaktikoen bidez.

Laguntzaileak:

**TOURLINE[®]
EXPRESS**
Como si lo llevaras tú mismo



**BIZIRIK IRAUN
IKASI
BABESTUTA IZAN**



Save the Children